

Martin Ugalde jaunaren janzkera hitzaldia: kazetaritzaren muinak

In: Askoren artean: *Akademia Ekitaldi Nagusia. Martin Ugalde Jaun Txit Gorena Honoris Causa Doktore. Pedro Miguel Etxenike eta Juan José Goiriena de Gandarias Jaun Txit Gorenak Unibertsitatearen Urrezko Dominadunak / Solemne Acto Académico. Excmo. Sr. D. Martin Ugalde Doctor Honoris Causa. Excmos. Sres. D. Pedro Miguel Etxenike y D. Juan José Goiriena de Gandarias Medallas de Oro de la Universidad*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2000: 71-76.

Idazle berantiar eta transgeneriko gisa ezaguna banaiz ere, neronek kazetaritzat daukat nire burua, eta halaxe aurkezten naiz funtsean. Hogeitabost urte banituen gerrondoan gurasoak ta bi mutiko ginen familia bizpairu aldiz sakabanatu eta lauok Caracasen berrezagutu ginen elkar hamar urte barru (1937-1947); neuk hogeitabost urte, askatasunean lehen aldiz eta ofiziorik gabe.

Frankismoan idaztea debekatua neukan, euskaraz hitz egitea ere bai; herritik irteteko ere salbokonduktoa behar nuen; mututako bokaziorik ez nuenez, irakurri egin nuen irrika bizian.

Nondik datorkit nire idazteko errebeldia?

Nire aitarena ez da; errebeldia, bai, letrarik ez; bestetik, bai supasterra gordetzen geratu zen amari zor diot doain naturalean komunikazio bide honen hazia; bere eskola motxean ikasi ahal izan zuen letra pittina erabiltzeko berezko joera naturala:

Gogoan dut Ugalde eta Orradre guztien erbestaldiaren familiazko eta apaindura gabeko harreman preziatuak emakume maite honi zor izan dizkiogu berrogei urtean zehar gutun bideko notiziak: nor ezkondu zen, nor hil, nor berri jaio zitzaigun.

Abemariaz ere berak esker asko eman zizkion Goikoari, eta, behean lagundu zigun guztioi; neu beragan, eskertsu sentitzen naizen moduan gaur eta hemen nire herriko instituzioei, batez ere Leioan Euskal Herriko Unibertsitateari eskertzen diodan bezala bertoko Erretore jaunari, Pello Salabururi; nitaz ohartuta lehen proposamena egin zuena: Idoiaga jauna; Iñaki Iriarte eta Jose Ignacio Armentia; Lontxo Oiarzabal, nire herritar leiala; onartu eta nire kandidatura bultzatu zuen Ander Gurrutxaga; kazetaritzako Dekano den Manuel Montero; nere Aitajaun leiala den Hondarribiako Jose Manuel Susperregi.

Hara hemen nere leialtasunak erakusarazten dizkidan zorrak.

Barkatuko al didate toki faltaz aipatu gabe utzi behar izan ditudanak.

Beste zerbait egin behar dut gure herriko Unibertsitatea eskaintzen ari zaidan ohore handi hau ni, neu, jasotzen ari naizen une honetan: neuri dagokidan lehen sarrerako diskurtsoa egin behar dut, gauza laburra:

GAIA KAZETARITZA denez gero, Euskal Herrikoaz aritzea ez da bekatu izango. Herri honetako bereziaz, beste batzuk askotan ahaztutzen dutena, esan nahi dut, euskaraz egindakoa.

Orain urte gutxi arte Unibertsitate publiko euskaldunik izaterik ez dugu izan, ez inperioko latinez, ez gaztelerez, ezta frantsesez ere; ezin dugu arrazoin politikoa eta hizkuntzarekikoa ahaztu; ezin dugu eskatu eskola euskalduna izan ez dutenek euskal

kazetariak izatea; nahi izaterik izan, eta eskolarik gabe, ezin euskal kultura modernorik normalean garatu eta erakutsi. Nola izango dugu prentsa euskalduna, euskaraz irakurtzen eta idazten ikasle euskaldunak egiten ez badugu, eta hauek gabe zertarako behar dugu irakurle goarrik; zergatik ez dugun herrien arteko administrazioa euskaldunok euskaraz, Estatuaren arteko administrazioa komunikazioak erdara hutsez egiten badira; zertarako behar dute euskaldun xumeek, eta gehiago euskaldun jantziak direnek, berez latinez eta erderatan irakurtzen ikasi eta herrian gertatzen diren berriak hizkuntz hauetan ikasiak badira, behar duten hainbat eta sobera erdaraz jasotzen badute?

Hara nola nere aita euskalduna hutsa; eskolarik gabe, noski, dotrina justu!, orain hirurogei eta hamar urte etxean bi egunkari hartzen genituen: Donostiako "El Día" goizean eta Bilboko "Euzkadi" eguerdian, postaz!, eta bi egunkari hauek erdaraz inprimituak, eta aurretik idatziak, zertarako erdaraz hartzen genituen, erdaraz irakurtzen ikasteko ez bada?

Orduko gure herriko kazetak erderetako eskolak ziren! Eta ez da hala, fede oneko naizen lekuko honek bere herriko Unibertsitatean gaur denen aurrean euskaraz esana!, eta hau, neronek, kazetaritza erdaraz eta atzerrian ikasteko bide bakarra izan duena!

Nola demontre sortuko da berau herrian, bada, gure kazetaritza "euskalduna"?

Neroni tartean nintzela euskaldun erdaldundutako eta euskal kazetaritza gabeko euskaldun gazteez inguratuta, horien errebeldia eta arrazoinak ematen duen adorearekin, honen anparoan, ausartu nintzen enpresa honetan sartzea orain hamar urte, eta sosik gabe, Mezenas baten bila, edo diru pixkakako asko!

Hori bai, dirurik gabeko herri osoa zetorren bultzaka.

Miraria zirudien!

Harrez gero lehen taldetxoa osatzen genuenetatik bi hil dira, ongi merezia dute aipamena: Joxemi Zumalabe eta Joseba Jaka. Lehenengoak honela idatzi zuen gaitz txar eta azkar batek jota hil aurretik.

"Jende gutxi izan du neuk orain bezala, jendearen maitasunaren adierasle hain argigarria jasotzeko aukera. Oraintze "zure egunkariko langileak", Egunkariaren bi urte direla eta lore sorta bat, –oso polita porcierto– bidali didate. Maitatua sentitzen naiz alde guztietan, eta nere barnean ez da kabitzen horrek sortzen didan poza. Gainezka egiten dit emozioak, eta negarrez urtzen naiz. Nere bizitzaren kapitalik handiena, nere inguruan sortu zaidan laguntasun oparo hau dela sentitzen dut. Oharkabea aberats sentitzen naiz" 1993eko urtarrilak 12.

Lanerako erabiltzen dudana Hiztegia gordetzen ditut idatzitako perla batzuk, hau kopia egin berria dut Joxemiren eskelatik.

Honelako bakean aingeruak bakarrik hiltzen omen dira.

Hau da gure Herriaren arma sekreto.

Maitasun handia behar da gaurko egunean edozein hizkuntzetan lehen aldiz Egunkari bat sortzeko. Iragarki motzarekin, irakurlego laburrekin, egunkari euskaldun hau gero kalegorrian saltzeko.

"Maitasun baten historia" izan daiteke egokia euskarazko kazetaritzaren historia laburtxo honi izena emateko.

Bada gazteriarik gure herrian, eta jaioko dira besteak.

Gure Unibertsitateak badu egin beharrik euskararen alde, irakaskuntza nagusienean!; halere, lorpen ederrak egin baditu ere, euskararen jauzi handi baten behar gorrian dago. Hau saiatzeko ordua heldu da!

Itxaropenaren ondoren, ekintza beti!

La Lección

La lección que he aprendido es que necesito de la libertad sin censura ni corsé.

Y una cierta humildad.

Este honor que se me hace de aceptarme en este Claustro de la Universidad de Euskal Herria como Maestro de algo que he aprendido de la vida, digamos que en tres tiempos: lo que era al nacer; con las herencias; lo que se ha ido adhiriendo de un entorno dado, y ha llegado a completarse por voluntad propia.

Entiendo que se me reconoce una experiencia periodística, y a mi vez debo pronunciar un discurso corto y a la vez elocuente: intento prepararme tan apegado a lo formal, como dicen los cánones, que no me sale, porque es grande la pretensión y la esperanza; y pienso en la bondad de una dosis de humildad que me recomendó, acaso Larra. "Cómo digo algo así, sencillo, como el periodista que soy. Lo periodístico, diría Azorín, consiste en pensar derecho y corto, con un soplo de claridad, si puede ser. Lo que me espanta aquí es el Discurso!; y pienso en lo que soy, en periodista raso, que ha aprendido a captar la situación que la vida me ha ido poniendo por delante, sin corsé, porque esto es lo que yo sé hacer; y sin más, la conciencia entiende, y, al final, he llegado a decir algo de mi lección, que es la mejor forma de enseñar a los demás.

He dado la lección.